

Filmen emunaldixa

Jerardo Elortzak parte hartutako filmak ikusgai izango dira, Kepa Elortzaren sarreriarekin eta Agustin Goenagak aurkeztuta:

- *Gabon dut Anuntzio* (1999)
- *Liñugintza* (1974)
- *Aita Lasa, artzainen artzain* (1981)
- *Lope de Agirre* (1983)

Omenaldixa

Ospakizunak hainbat atal izango ditu: alkatiaren berbak, poesia-errezitaziñua, bertsuak, proiektziñuak, kantuak, atxikimenduak... eta, tartian, jadanik gurekin eztagozen ekintzaille batzuk be gogoratuko ditugu.

ibillialdixa

Natur Eskolaren eskutik.
Txangua Araozdik Urrusulara izango da.
08:30ian Araozgo Saloian saldatxo bat hartu, ibillialdixaren nundik-norakuak jakin, eta aurrera!
Bidian Sandali eta makiñetxia bisittau ondoren, Urrusulara ailegauko gara ubidiari jarraituaz. Dana launian.
Amaieria, **14:00ak aldera**, kafe, mokadutxo edota baxoerdi bat hartuaz.



Oñatiko Udala



OÑATI
dabilen herria

JERARDO ELORTZAr OMENALDIXA



KULTUR astia

EKAIÑAren 1etik 9ra

OÑATI

Jerardo Elortza Egaña

Oñati (Gipuzkoa) (1944)

Oñatiko Kale Zaharrian jaio zuen. Aita Torrealazoko Lazarraga (Elazar) baserrikua eta ama, berriz, Garibai auzoko Dolaetxekua. Aleman filologia ikasi eben Deustuko Unibertsidadian. Bergarako Aranzadi ikastolan hiru urtian irakasle jardun eta gero UNEDeko Euskal Kultur departamenduan beste hemeretzi urtian ibilli zuen. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailian urtebetian lan egin eta gero, Oñatiko Mondrago Unibertsidadian irakasle izan da erretirua hartu arte. 2009tik 2016ra *Bidegileak* liburuxka bildumia zuzendu dau. Euskaltzale eta historia zale amorratua da Jerardo. Oñatiko Tere Letamendirekin ezkondu eta seme-alaba bi izan zituen, Urdin eta Irantzu.

Herrixan oso pertsona ezaguna da Jerardo, batez be, azkenengo berrogeita hamar urtian, sail askotan, herriko kulturiaren alde egin dituen lanak: hizkuntzan, literaturan, antzerkian, historian, etnografian eta beste zenbait esparrutan; danetan herriko gaixak edo orokorrak landuaz eta mailla gorenera eruanaz.

Horregatik ba, omenaldi bat eskiñi gura xau-gu, ondo mereziutakua. Eta Jerardorekin batera, kultura berpizten hainbeste urtian saiatu diran beste pertsona batzuk be gogoratu gura ditudugu.

Hona hemen, helburu horrekin gertatu dogun Kultur Astia, danon gustukua izango da-lakuan eta Jerardok izan eben eta oraindikiok be dakon ilusiñua gaztiaguen artian ixuketako asmotan.

Egitaraua

Erakusketia Kultur Etxian

Jerardo Elortzaren gaiñeko erakusketia
2018-06-01etik 08ra

Egunero: 18:00 – 20:00

.....

Hitzaldia Santa Ana antzokian

Jerardo Elortza 'Egile'

Hizlaria: Juan Martin Elexpuru

2018-06-04

Astelehena 19:00

.....

Mahai-ingurua Kultur Etxian

Moderatzailea: Luxio Ugarte

2018-06-06

Eguaztena 19:00

.....

Filmen emunaldia Kultur Etxian

Aurkezlea: Agustin Goenaga

2018-06-07

Eguena 19:00

.....

Omenaldia Santa Ana antzokian

Aurkezlea: Olatz Osa

2018-06-09

Zapata 12:00

.....

Omenaldixaren ostian **bazkaria** izango da
Etxe-Aundi jatetxian.

.....

HURRINGO ASTIAN

Ibillaldia Araotz – Urrusula

Gidariak: Jerardo Elortza eta Imanol Biain

2018-06-17

Domekia 08:30 **Araozgo** saloian

.....

Erakusketia

Inauguraziñua ekaiñaren 1ian 18:00etan
izango da.

Luntxa egongo da.

Erakusketia itxiko da ekaiñaren 8xan,
egubaikotza, 20:00etan

Hitzaldia

Juan Martin Elexpuru Jerardo Elortzaren
bizitza kultural eta akademikuaz jardungo
dau.

Aurretik, Idoia Etxeberriak gertatutako
bideo biografiko bat ikusiko dogu, eta
Paulo Anduaga aita agustiñuak euren
komunidiaren eta Jerardo Elortzaren
arteko harremanen barri emungo dau.

Mahai-ingurua

1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur
bizitzaren berpizkundia garaiko lekukuen
eskutik.

Jerardo Elortza. Euxebi Osa (Ikastolia),
Carmenhu Balategui (Oñatz alkartia),
Juanxo Madariaga (Udal liburutegiko
batzordia).

Moderatzailea: Luxio Ugarte.

.....